



Arartekoaren 2016R-158-15 Ebazpena, 2016ko urtarrilaren 27koa. Horren bidez, Tolosako Udalarari gomendatzen zaio ez diezaiela eman, edo, eman badie, ken diezaiela udalerrri horretako elkarte gastronomikoei edozein diru-laguntza zein laguntza publiko, onarpen prozesuan, funtzionamenduan edota jardueretan emakumeen sarbidea baldintza beretan onartzen ez badute, eta, era berean, susta ditzala genero estereotipoak deuseztatzeko neurriak, baita ekintza positibokoak ere, espazio horietan emakumeek jasaten duten bereizkeria zuzentzea lortzeko xedez.

Aurrekariak

1. Tolosako herritar batek erakunde honetara jo du egitate batzuk salatzeko asmoz. (...) elkarteak Tolosako inauterietako "*ostegun gizona*" izendatutako afarira emakumeak bertaratzeari ezezkoa eman dionean hasi dira egitate horiek. Aipatu elkarteko bazkidea den heinean, aurreko urteetan proposamen bat aurkeztu zuen, "*ostegun gizona*" ospatzeko egiten den afarian emakumeak ez onartzeko ohitura amaiazteko asmoz. Urtero, elkarte horretako gela sozialetan egiten da afaria. Aipatu ekimenaren aurreko erantzun gisa, aldatu egin zuten afarian izen-emateko ohikoa zen prozedura. Aldaketaren aurretik, bazkidearen izena idatzi behar zen zerrendan (gizonak bakarrik), gonbidatutako pertsona kopuruarekin batera (gehienez bi). Formula berriak gonbidatutako pertsonen izen-abizenak idaztera behartu zuen, izen-emandako pertsonen artean emakumerik ote zegoen ikusi ahal izateko. Hortik aurrera, izen-emateko hiru eguneko ohiko epe gehigarria gaineratzen zen, eta, izen-emandako izenei erreparatuta, epe horrek izena kentzeko aukera ematen zien halaxe egin nahi zutenei. Elkarteko presidenteak onartu eta aplikatu egin zuen prozedura-aldaketa hori, eta bazkideen batzarrak berretsi zuen gero.

Inauterien hurrengo edizio batean, "*ostegun gizona*" afari tradizionalen izen-ematea erabaki zuen kexagileak, bazkide modura, gonbidatutako bi emakumerekin batera. Arau berriekin bat eginez, horien izenak idatzi behar izan zituen. Hurrengo egunean, ezabatuta agertu ziren afarian izen-emandako bazkideen eta horien gonbidatu guztien izenak, kexagilearena eta bere bi gonbidatuena izan ezik. Horrela, bada, afarian, aipatu elkarteko geletan, hiru pertsona horiek baino ez ziren egon (gizon bat eta bi emakume), hasiera batean afarirako izena eman zuten gainerako bazkideak (gizonak guztiak) egoitza sozialetik hurbil zegoen alokatutako lokal batean afaldu zutelarik, elkartean afaria zerbitzatu behar zuen enpresa berak zerbitzatuta. Enpresak horrelaxe egin zuen aipatu hiru pertsonekin ere.

Itsuskeria horren aurrean, zeinaren arrazoi bakarra "*ostegun gizona*" afarian emakumeak egotea zen, eta kontuan hartuta –bazkide horren esanetan– elkarteak, nolabait, udal laguntza bat jaso ahal izan zuela aipatu afaria antolatzeko, kexagileak babesa eskatu zion Tolosako Udalarari; Tolosako Berdintasunerako Udal Ordenantza aintzat hartuta, azaldutako egitateen gaineko informazio-espeditatea hasi zezan eta elkarte hori emakumeen aurka





burutzen ari zen balizko bereizkeriari buruzko txostena egin zezan, eta, hala balitz, aipatu udal ordenantzan ezarritakoa betetzeko neurri egokiak har zitzan.

Aipatu eskaera egin zuenetik, kexagileak berriro planteatu du kontua udal gobernuaren aurrean, eta bertako kide batzuekin bildu da horretarako. Udalak bere eskariei erantzun ez zenez, udaleko berdintasun arduradunarekin harremanetan jartzea erabaki zuen gero herritar horrek, eta arduradunak jakinarazi zion (...) elkarteko zuzendaritza berarekin elkartzeko prest zegoela, kontuaz mintzatze aldera.

Arrazoi horiengatik jo du kexagileak Arartekora, azaldutako udal jardueraren aurkako kexa behar bezala bideratu dezagun. Bere ustez, eta berak -partikular eta bazkide gisa- (...) elkarteko arduradunekin elkartzeko aukera edukitzeaz harago, Tolosako Udalak ez dio babes eskaerari egoki erantzun, ez eta Tolosako Berdintasunerako Udal Ordenantzari erreparatuta abiarazi beharko liratekeen neurriak aztertzeari egoki erantzun ere. Azaldutako jarduerak emakumeen eta gizonen berdintasunari egokitzearen harira gizartean sortzen den barne gatazka arintzeari zuzendutakoak lirateke aipatu neurriak.

Era beran, nahiz eta interesdunak ezin dezakeen ziurtasunez baieztatu "*ostegun gizona*" afaria antolatzeke laguntza publikoak jaso zirela, uste osoa dauka elkarte horrek udaleko diru-laguntzak jasotzen dituela jarduera asko antolatzeke, antolakuntzatik emakumeak *de facto* baztertzen baditu ere (ez dago emakume bazkiderik). Arrazoi horrengatik ere kontua ikertu dezagula eskatu du.

2. Gure jardunbidea behar bezala bideratzeko xedez, hainbat aldiz jo dugu Tolosako Udalera kexa hau formulatu zenetik. Bertan, egitate horiek azaldu ditugu, bai eta egitate horien harira egin ditugun aurretiko gogoeta juridikoen berri eman ere, eta, era berean, laburtuz, hurrengo kontuen gaineko informazioa eskatu dugu:

- Ea Tolosako Udalak gaur egun edo uneren batean laguntza edo diru-laguntza motaren bat eman dion (...) elkarteari.
- Ea aipatu elkarteak baimen, lizentzia edo eskueste motaren bat eskatu dion Tolosako Udalari, emakumeak baztertuta jardueretako edozein egiteko.
- Ea udalak neurri motaren bat sustatu duen -bere eskumenen eremuan-, (...) elkartearen konpromisoa lortze aldera, elkartearen funtzionamenduan eta jardueretan sexuagatiko bereizkeriarik ez egoteko irizpideak ezartzeari dagokionez.
- Ea udal hori estrategiak edo neurriak aztertzen ari den edo aztertu dituen, bere ustez aktiba ditzakeenak, elkarte batzuen funtzionamendua eta jarduera Tolosako emakumeentzat sortzen egon daitezkeen balizko egoera amaiarazteko.



Kontu hau kokatzeko legezko testuingurua gogorarazi diogu udalari gure idazkietan. Alde batetik, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Eusko Legebiltzarrarena*, aipatu dugu. Lege horren 24. artikulua ezarri du elkarteei dagozkien diru-laguntzak egokitzeko beharra dagoela, ordezkaritza organoetan emakumeen presentzia areagotzea ahalbidetzeko neurriak hartzen diren ala ez, emakumeak azpi-ordezkatuta dauden organoei dagokienez, eta, bestalde, sexuagatiko bereizkeria egiten duten elkarteei laguntza publikoak emateko debekua ezarri du modu hertsia. Bestetik, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Ordenantza* ere, *Tolosako Udalarena*, aipatu dugu, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa garatu baitu eta aipatu herriari aplikatu baitio. Bestalde, zera jaso du 42. artikuluan: *"elkarte, antolakunde edo talde eskatzaileei diru-laguntzak emateko orduan, balorazio irizpide modura sartuko da horiek emakumeen eta gizonen berdintasunarekin duten konpromisoa, bai zuzendaritza organoen osaketari dagokienez, bai egin nahi dituzten jardueren dagokienez"*.

3. Gauzak horrela, udalak, bere erantzunetan, ez zituen ukatu helarazi genizkion egitateak, eta ez zien ñabardurarik egin; hala ere, tematu egin behar izan ginen ahalik eta gehien zehaztu zezan kontu horiei emandako erantzuna. Edonola ere, ondorioztatu ahal izan genuen Tolosako Udalak neurri eraginkorrak abiarazi zituela Tolosako elkarte gastronomikoetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko prozesu parte-hartzailea bultzatzeko xedez, eta, idatziz jaso bazen ere 2007-2011 urteetan (...) elkarte gastronomikoari diru-laguntzak eman zizkiola, ezin izan genuen ondorio argirik artera 2012an gertatu ahal izan zenaren inguruan.
4. Horregatik guztiarengatik, zentzuzkotzat jo genuen Tolosako elkarte gastronomikoetan berdintasuna sustatzeko abiarazitako prozesua hel zedila uztea, prozesuak (...) elkartean izandako benetako eragina zein izan zen jakin ahal izateko, eta, era berean, denbora igarota, udalak aipatu elkarte gastronomikoari diru-laguntza edo laguntza berririk eman ez ziola ziurtatzeko. Gai honen inguruko gure esku-hartzea amaitutzat jo aurretik, eta kontuan hartuta kexagilearen ustez arazoak konpondu gabe jarraitzen duela, udalak bere erantzunean berdintasunarekiko konpromisoa adierazi bazuen ere, berriro jo dugu Tolosako Udalera, bi kontuen gaineko erantzuna lortze aldera; hau da, zein eragin zehatz eduki zuen (...) elkarte gastronomikoan berdintasuna sustatzeko aipatu prozesuak, eta zein den diru-laguntzen egoera 2012tik gaur arte, elkarte horri dagokienez.
5. Puntu hori argitu behar dugu, izan ere, gure azken informazio-eskaeraren eta udalaren erantzunaren artean lau hilabete igaro baitziren. Denbora tarte horretan, aldaketa egon zen udal gobernuan, eta, beraz, erantzuna, guk egindako errekerimenduaren ostean jaso genuena, ez zuen alkateak sinatu, eta txosten tekniko bat helarazi ziguten, Euskadin azken udal hauteskundeak egin ostean idatzi zena, tokiko gobernu berria osatzeko aldirian. Tolosako



Udalak aipatu herriko elkarteetan berdintasuna bultzatzeko sustatu duen prozesu parte-hartzaileak jarraitzen duela berretsi da erantzunean, eta aldaketaren emaitzak positiboak izan direla, azken urteotan areagotu egin baitira mistoak izatera igaro diren elkarteak. Horrela, aipatu txosten teknikoan azaldutakoari jarraiki, 2010ean hasi zen aipatu prozesua. Tolosan 30 elkarte daude, eta garai hartan 6 bakarrik ziren mistoak; gaur, ordea, 14 mistoak dira eta 16 ez. Hala ere, (...) elkarteak, emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiteko prozesuan parte hartzen duen arren, gizonentzako bakarrik izaten jarraitzen duela baieztatu da. Azkenik, ez da ezer adierazi elkarte horrek 2012tik aurrera jaso ahal izan dituen edo jasotzen egon daitekeen diru-laguntzei edo udal laguntzei buruz. Saiakera asko egin ditugu kontu hori argitze aldera, baina, oraindik ere, ez dugu lortu.

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, gure ardurapean utzitako kontua kokatzeko legezko testuingurua zehaztu behar dugu. Gure ustean, azaldutako arazoak **bi dimentsio juridiko ezberdin** ditu, botere publikoen eginkizuna modu berezian zehazten dutenak, salatutako jarduerari dagokienez, eta, ondorioz, erakunde honen jardunbidearen mugak ere bereziki dituztenak. Horrela, alde batetik, (...) **elkarteak bere estatutuei eta antolatze moduari eman dien artikulazio zehatzari** dagokionean, **elkarteko oinarritzko eskubidearen** adierazpenaren aurrean gaude, eta askatasun zibilean eta botere publikoen esku-hartzerik ezean oinarritzen da hori. Izaera juridiko pribatua duen eremua da, eta erakunde honen esku-hartzea galarazten du horrek. Beste alde batetik, elkartzeko askatasun horrek emakumeei dakarkien ondorioei dagokienez, kontuak beste dimentsio bat bildu du, **sexu berdintasunerako printzipioari eta herri-administrazioek berau sustatzeko duten eginkizunari** eragiten diena, bai eta sexuetao bat **diskriminatzen duen edozein jarduerari diru-laguntzak emateko debekuari** eragiten diona ere. Jarraian, bi dimentsioek esku-hartze honen xede diren jardueretikiko duten irismena aztertuko dugu.
2. **Elkarteko eskubideari** buruz, konstituzioaren 22. artikuluan dago jasota horren oinarria, eta *Elkarteko Eskubidea arautu duen martxoaren 22ko 1/2012 Lege Organikoak* eta garapenerako euskal legediak, *Euskadiko Elkartei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legea*, garatu dute. Oinarritzko eskubide hori bere dimentsio indibidualean adierazten da, xede komunak lortze aldera beste pertsonekin elkartzeko eta horiekin harremanak izateko bulkadaren adierazpen gisara. Bere dimentsio kolektiboan, egitura antolatua ezartzea dakar, egokia parte-hartze komunitariorako nahiak bideratzeko, interes orokorreko edo partikularreko xedeekin, jarduera kulturalak, dibertimenduzkoak eta aisialdikoak, sozialak eta solidarioak eta diru irabazi asmorik gabeko antzeko beste edozein jarduera garatuz. Gainera, eskubide horrek **askatasun zibilerako printzipioan** oinarritzen du bere burua, eta, ondorioz, partikularrei eta gizarte zibilarri gordetako eremuan kokatzen da. Garrantzitsua da, era berean, zera nabarmentzea: **herri-administrazioek**





elkarteen osaketa askea edo horien jarduera askatasuna oztopatzeko edo kontrolatzeko edozein saiakerari uko egitea dakarte errespetuak eta askatasun bermeak eta aniztasun sozial zein politikoak. Botere publikoentzat ezinbesteko betebeharra da horiek betetzen duten funtzio sozial garrantzitsua aitortzea eta bultzatzea, gizarte zibil dinamikoaren adierazpen gisa.

Testuinguru horretan inskribatu da elkartzeko eskubidearen garapen zehatza arautu duen araubide juridikoa, **elkarteen aitortza juridikorako betebeharretik hasita, baina beharrezko arretaz, pertsona partikularrei gordetako eremuan sektore publikoak esku-hartzea saihesteko**. Azaldutako testuinguru juridikoan, uler daiteke **Tolosako Udalari ez dagokiola elkarte zehatz baten ordenamendu juridikoarekiko adostasunaren edo adostasunik ezaren gaineko epai juridiko materiala egitea**, eta, ondorioz, ez dagoela (...) elkartearen funtzionamenduaren gainean esku hartzera deituta -erakunde honi igorritako hasierako kexa-idazkian kexagileak horixe nahi zuela zirudien-, nahiz eta elkartearen estatutuetan berariaz ezarri den, edo horrelaxe ondorioztatu den egiten duen funtzionamendu zehaztetik, elkarte osatzen duten pertsonak eta horren jardueretan parte hartzen dutenek sexueta batekoa izan behar dutela, izan ere, botere publikoek esfera pribatuan esku hartzea ekar lezake horrek, elkartzeko oinarritzko eskubidea urratuz horrela. Zentzu horretan, zera adierazi du berariaz *Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 4.2. artikulua* *"Elkartzeko eskubideak elkarteak aurretiatzko inolako baimenik gabe eratzeko eskubidea.."* jasotzen du, eta zera ezarri du 4. artikulua beraren 9. idatz-zatiak: *"Euskal herri-botereek ez dute legetan berariaz aurreikusten ez den esku-hartzerik egingo, esku-hartze hori elkartearen jardun askerako eta elkartearen funtzionamendu- eta antolamendu-askatasunerako oztopo bada."* Beraz, era berean baieztatu behar dugu ez dagokiola aipatu udalari elkarte baten barnean sor daitezkeen barne gatazkak ebaztea¹, jurisdikzio ordena zibila izanik eskuduna, elkartearen eta horien barne funtzionamenduaren trafiko juridiko pribatutik eratorritako asmoei dagokienez.

¹ Herri-administrazioek uko egiteko duten betebeharraren ideari gehiago eusteko xedez, egokia da gogoraraztea legeak ez diola elkartearen erregistroaz arduratzen den herri-administrazioari horien legekotasan materiala kontrolatzeko ahalmenik ere ematen, eta berariaz mugatzen dizkiola eremu horretan jarduteko aukerak, delituzko xedeak bila ditzaketen edo delituzko bitartekoak erabil ditzaketen elkartearen eskaerak eteteari mugatuz ahalmena, eta, kasu horietan, nahitaez igorri beharko diote kontua Fiskaltzari, organo horrexek erabakiko baitu egokia den eskudun jurisdikzioaren aurrean zalantzan jartzea tartean dagoen elkarte elkartzeko eskubideari egokitzen zaion ala ez. Halaxe ezarri du elkarteei buruzko aipatu euskal legearen 40. artikuluko 5. idatz-zatiak, zera adierazi duenean: *"elkartearen osaketan zilegitasunik ez penala dagoelako arrazoizko zantzuak aurkituko balira, eskudun organoak ebazpen arrazoitua idatziko luke, eta dokumentazio guztia igorriko lioke Fiskaltzari edo eskudun jurisdikzio organoari; zirkunstantzia horren berri emango lioke entitate interesdunari, eta administrazio prozedura etengo luke, ebazpen judizial irmoa atera arte. Berdin jardungo litzateke, elkarte baten jardueran zilegitasunik ez penala dagoelako arrazoizko zantzuak hautemango balira."* Legezko xedapen hori irakurrita ondorioztatu daitezkeen bezala, legeak zilegitasunik ez penaleko zantzu muturrekoenak dauden kasuetara mugatu du herri-administrazioaren esku-hartze etengarria, kasu horietan ere inskripzioa ukatzeko gaitasunik eman gabe, dagokion erabaki judizialaren zentzua ezagutu aurretik. Horrekin ikus dezakegu ordenamendu juridikoak elkartzeko eskubidearen eta elkartzeko askatasunaren babesean arreta berezia jarri duela, herri-administrazioen esku-hartze posibleen aurrean.





Arrazoi horiengatik, lehenik eta behin, zera ondorioztatu behar dugu: **elkartearen antolaketa gaitasuna dela-eta, ezin daitekeela Tolosako Udalaren esku-hartzea defendatu -izan kexagilea babesteari begirako esku-hartzea, izan kexagilearen jarreraren eta sarbidea berariaz gizonentzat izateko sistemari eustea defendatzen duten bazkideen jarreraren artean sortutako gatazka ebazteari begirakoa-**, nahiz eta emakumeak elkartetik, horren ohiko funtzionamendutik edo antolatzen dituen jardueretatik baztertzea dakarren azken jarrera horrek. Horrekin guztiarekin, eta kexagileari hainbat idazkitan jakinarazi diogun bezala, beharrezkoa da azpimarratzea, **justifikazio objektibo eta arrazoizkorik gabe sexu-etako bat baztertzen den kasuetan, jurisdikzio zibilaren aurrean planteatu beharko litzatekeela elkarteko estatutuen, funtzionamenduaren edo jardueren aurka egitea**, aipatu elkartea elkarteei buruzko euskal legearen 9.3. artikuluan jasotako klausula nagusia urratzen egon daitekeen neurrian -sexuagatiko bereizkeriarik ezaren konstituzio printzipioa hausteagatik (oinarrizko arauaren 14. artikulua)-, izan ere, horren arabera, *"estatutuen edukia ezingo da izan ordenamendu juridikoaren aurkakoai zan"*, eta 9.1. artikulua ere urratzen egon daitekeen neurrian, hau da, estatutuek *"elkartearen funtzionamendu demokratikoa bermatzeko irizpideak"* jasotzeko duten betebeharra urratu dezakeen neurrian. Hori guztia, ordea, jurisdikzio zibilak argitu behar du, herri-administrazio batek ere, Tolosako Udalak kasu, zeregin horretan organo judizialak ordeztuko aukerarik eduki gabe.

3. Dena dela, kasu honetan bigarren dimentsio bat ere badago, arestian aurreratu dugun bezala. Hots, **Tolosako Udalak aipatu elkarteari eman dizkion diru-laguntzak**, alde batetik eta egiaztatuta, 2012. urtera arte eman dizkionak -udalak berak erakunde honi emandako erantzunetan berariaz aitortu duenaren arabera-, eta, agian -ezin izan dugulako ez egiaztatu, ez baztertu-2012tik gaur arte eman dizkionak. Udalak ez du azken egitate hori argitu, nahiz eta horren gaineko azalpena edukitzen saiatu garen.

Bada, **herri-administrazioek emakumeen sarbidea galarazten duten elkarteekin (izan bazkide izateko, funtzionamenduan edo jardueretan) dituzten harremani dagokienez, Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen** xedapenak aplikatu behar dira nolnahi ere. Alde batetik, sexuagatiko bereizkeria egiten duten elkarteei estaldura publikoa, ekonomikoa edo juridikoa ematea debekatzen dute, eta, bestetik, kultura eremuan berdintasun erreal eta eraginkorra lortzeko beharrezkoak diren neurriak sustatzera behartzen ditu herri-administrazioak.

Horrela, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak* xeheki aipatzen du kontu hori, 24.1. artikuluan ezarri baitu elkarteei dagozkien diru-laguntzak egokitzeko beharra dagoela, ordezkaritza organoetan emakumeen presentzia areagotzea ahalbidetzeko neurriak hartzen diren ala ez, emakumeak azpi-ordezkatuta dauden organoei dagokienez. Eta, bestalde, 24. artikuluko 2. idatz-zatian modu hertsia egon ezarri du sexuagatiko bereizkeria





egiten duten elkarteei laguntza publikoak emateko debekua. Honakoa jasotzen dute aipatu xedapenek, hitzez hitz:

“24. artikulua. – Elkarteak eta erakundeak.

- 1. Euskal herri-administrazioek sustatu behar dute emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadila profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakundeen zuzendaritzako organoetan. Horretarako, gehitu edo egokitu ahal izango dituzte elkarte eta erakundeoi adierazitako helburua betetzearen arabera dagozkien diru-laguntzak.*
- 2. Euskal herri-administrazioek ezin izango diete inolako laguntzarik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei.*

Modu berean, azken debekuari buruz, lege beraren 3.1. artikulua (hirugarren paragrafoa) jasotzen duena nabarmendu behar dugu, sexuagatiko bereizketa egiten duten jardueri laguntza publikoak edo diru-laguntzak emateko debekua ezarri baitu, zera adierazi duenean:

“Euskal aginte publikoek ezin izango dute inolako diru-laguntza edo laguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duen edonolako jardueratarako. Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak ere egoera berean geratuko dira, dena delako zehapen edo zigorrak dirauen denboran.”

Aipatu xedapenetatik ondoriozta dezakegu, batetik, botere publikoek diru-laguntzak emateko orduan genero ikuspuntua txerta dezatela nahi duela legeak, elkartze funtzionamenduan berdintasun printzipioa bultzatzeko balio dezan sustapenerako administrazio jarduerak (24.1. artikulua). Tolosako Udalak elkarte gastronomikoetan berdintasuna sustatzeko abiarazi duen programak legezko oinarria aurkitu du hor, udaletik bertatik bultzada ekonomikoak eratorri ahal izan daitezen sexuen arteko berdintasunezko irizpideekin antolatu eta funtzionatu nahi duten elkarteentzat, bai eta bizitza sozialean eta kulturean emakumeen parte-hartzea eta ikusgarritasuna sustatzen duten jarduera sozialentzat ere.

Bestetik, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Ordenantza* ere, *Tolosako Udalarena*, aipatu behar dugu, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa garatu baitu eta aipatu herriari aplikatu baitio. Bestalde, zera jaso du 42. artikuluan: *“elkarte, antolakunde edo talde eskatzaileei diru-laguntzak emateko orduan, balorazio irizpide modura sartuko da horiek emakumeen eta gizonen berdintasunarekin duten konpromisoa, bai zuzendaritza organoen osaketari dagokionez, bai egin nahi dituzten jardueri dagokienez”*. Aipatu klausulak 4/2005 Legearen 24.1. artikulua izan jaso du, Tolosako Udalak





genero ikuspuntua txerta dezan udalerrri horretako elkarteei diru-laguntzak ematean.

Baina hortik harago eta modu hertsia goan, euskal legegileak **berdintasunerako legearekin ziurtatu nahi izan du sexuagatiko bereizkeria egiten duten jarduera sozialek inongo finantzaketa edo laguntza publikorik jaso ez dezatela** (3.1. artikulua), eta, era berean, **ezin izan dadila inolako laguntza publikorik eman funtzionamenduagatik edo antolatzeke moduagatik sexuagatiko bereizkeria egiten duten elkarteentzat** (24.2. artikulua). Legezko bi klausulek galarazten diete herri-administrazioei aipatu elkarteei edo jarduera sozialei edozein finantzaketa mota ematea, horrela, sustapen arloan gauzatzen da -eta horren arlo guztietan zehaztu- konstituzioaren 14. artikuluan jaso den berdintasun printzipioa, botere publikoek babestu beharrekoa. Legezko xedapen horietatik **Tolosako Udalarentzako agindu argia ondoriozta daiteke, hau da, aipatu udalak ezin izango diela diru-laguntzarik eman justifikazio objektibo eta arrazoizkorik gabe emakumeak bazkide izateko onartzen ez dituzten edo antolatzen dituzten jardueretatik emakumeak baztertzen dituzten elkarteei, hala nola, (...) elkarteari.**

4. Azkenik, genero ikuspegia sustapen jarduerari txertatzeaz eta sexuagatiko bereizkeria egiten duten elkarte guztiei laguntzak eta diru-laguntzak legez ez ematetik harago, aipatu 4/2005 Legeak 25. artikuluan ezarri du, modu orokorragoan, **sexuagatiko edozein bereizkeria saihesteko eta kultur jardueretan emakumeen eta gizonen sarbide eta parte-hartze orekatua sustatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituztela euskal herri-administrazioek.**

25. artikulua.– Kultura-jarduerak.

1.-Euskal herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, beharrezkoak diren neurriak hartu behardituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonen parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura- jarduera guztietan.

lido berean, lege horren 3.6. eta 3.5. artikulua aipatu behar ditugu, horiek osatu baitute, hurrenez hurren, euskal botere publikoek sexuaren araberrako rol sozialek eta estereotipoak ezabatzea sustatzeko duten betebeharraren legezko oinarria (rol eta estereotipo horien gainean eraikitzen baitira emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak), bai eta emakumeen benetako berdintasun eraginkorra lortzeari zuzendutako ekintza positiboko neurriak aktibatzeke duten betebeharraren legezko oinarria ere. Ekintza positiboko neurriak aldi baterako izaten dira, eta gizartearen errealitatean egoera okerreanean dauden herritar taldeei laguntzeko erabiltzen dira. Bestalde, tokiko eremuan ekintza positiboko neurriak betearazteke eskumena aitortu die lege berberaren 7.1.b) artikulua euskal udalei.





Tolosako elkarte gastronomiko gehienetan emakumeek oraindik ere jasaten duten bazterketa egoera aintzat hartuta (30etik 16 dira berriaz gizonentzat), eta udalak erakunde honi bidali dion txosten bakarretik ondoriozta daitekeen bezala, **beharrezkoa da Tolosako Udalak, eremu zehatz horretan, generoko estereotipoak deuseztatzeko neurriak sustatzeko aukera ere aztertzea, bai eta ekintza positiboko neurriak sustatzeko aukera aztertzea ere, emakumeek espazio horietan jasaten duten bereizkeria zuzentzea lortzeko**; batetik, emakumeak baldintza beretan onartzen dituzten elkarten presentzia soziala bultzatuz, eta, bestetik, emakumeen berdintasunezko parte-hartzea ziurtatzen duten jarduera sozialei lagunduz.

Alabaina, puntu honetan, udalerrri horretako elkarte gastronomikoetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko xedez Tolosako Udalak jada egin duen ahalegin goresgarria aitortu beharra daukagu. Izan ere, duela denboratxo bat programa parte-hartzaile bat abiarazi zuen, eta, egun, abian dirau. Oso emaitza positiboak edukitzen ari den ahalegina da, udal horrek igorritako txostenean ikus daitekeenaren arabera, Tolosako elkarte asko bihurtu baitira mistoak. Bestetik, plano juridikoan, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak* jasotakoaren barruan kokatu daiteke ahalegina, hain zuzen ere, botere publikoek jarduteko irizpide orokortzat jo baitu **partikularren arteko harremanetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioaren eraginkortasuna sustatzea** (aipatu legearen 14.10. artikulua). Era berean, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak* euskal herri-administrazioei eta, zehazki, udalei egotzi dien sentsibilizazio zereginetan sar daiteke udal horren ekintza (7.1.f) artikulua): *Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea*; y 7.1.l): *Toki-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek erroik kentzeko neurriak hartzea*. Gauzak horrela, erakunde honek oso ondo balioztatu du, partikularren arteko harremanetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioaren eraginkortasuna sustatzeko zereginaren markoan, Tolosako Udalak abiarazitako ekintzekin jarraitzea, Tolosako elkarte gastronomikoetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeari lotutako ekintzekin jarraitzea, alegia.

Bidezkoak izate aldera adierazi beharreko aitortza hori albo batera utzi gabe, erakunde honek Tolosako Udalari gogorarazi behar dio ezin diezazkiekeela laguntza publikoak eman antolakuntzan, funtzionamenduan edo jardueretan berdintasun irizpideak betetzen ez dituzten elkarteei, eta, hala balitz, amaiarazi egin behar duela egun ematen duen ildo horretako edozein udal laguntza.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:





GOMENDIOA

1. (...) elkarte gastronomikoari ez diezaiola eman, edo, hala balitz, ken diezaiola edozein diru-laguntza edo laguntza publiko, bai eta, justifikazio objektibo eta arrazoizkorik gabe, onarpen prozesuetan edo funtzionamenduan sexuagatiko bereizkeria egiten duten edo antolatzen dituzten jardueretan emakumeak baztertzeko dituzten beste elkarteei ere.
2. Genero estereotipoak deuseztatzeko eta ekintza positiboko neurriak bultzatzeko eremu zehatz horretan, Tolosako espazio horietan emakumeek jasaten duten bereizkeria zuzentzea lortzeko xedez; batetik, emakumeak baldintza beretan onartzen dituzten elkarten presentzia soziala bultzatuz, eta, bestetik, emakumeen berdintasunezko parte-hartzea ziurtatzen duten jardueren sozialak lagunduz.

